




BRUMA NEGRA LANBRO BELTZA
Plentzia Beltza Calibre .38

**“JAVIER ABASOLO”
2025eko
IPUIN LEHIAKETA
PLENTZIA**

Plentziako Udalak antolatutako “Javier Abasolo” 2025eko Ipuin-Lehiaketako epaileak Idoia Barrondo, Elena Fernández eta Noemí Pastor andreak izan dira, azken hori epaimahaiburu ere aritu delarik.

Eta haxe izan da haien erabakia:

“Javier Abasolo” 2025eko Ipuin-Lehiaketako irabazlea Mari Joxe Azurtza Sorrondegi da, “Zaborrek ezkutatzen dutena” ipuinagatik.

Plentzian, 2025eko urriaren 3an

ZABORREK EZKUTATZEN DUTENA

Mari Joxe Azurtza Sorrondagi

Denak aztoratu eta zoratu zituen zabor bilketa araudian tasa aldaketak: zabor gehiago sortzen zuten etxebizitzek zerga tasa handiagoa ordaindu beharko zioten udalari. Eta zer esan, araudi berri honek kaosa ekarri zuela besterik: lorategi batetik bestera zabor poltsak airean botatzeari ekin zioten herrikideek, haiek ez zitzaten sortutako zaborrak ordaindu bizilagunek baizik; beribila zabor poltsez goraino bete eta zakarra beste auzo batzuetan uzten hasi zen jendea, parke batzuk zabor leku bilakatuz; edota gauerdian isil-misilean albokoaren zaborrontzian sartzen zituzten norberaren zakar poltsak. Espero bezala, berehala piztu ziren liskarrak eta istiluak hirian. Gutxi behar zuen Liverpoolek iskanbilak hauspotzeko eta araudi horrek bizikidetza apurra apurtu zuen. Eta hala, laster heldu ziren desgraziak: airean botatako zakar poltsek lorategietan zeuden zakurrak zanpatu eta zauritu zituzten eta bi haurtxo ospitaleratu. Gertaera hauen ondoren eten egin zuen araudia udalbatzak eta bertan behera utzi handik gutxira.

Urte hartako gertakariak irakurri behar izan ditut garaiko kroniketan gaur jakinarazi didatenari zentzua xurgatzeko: eraberritzen ari ziren etxe bateko hormetan zakar poltsak aurkitu dituzte eta barruan, gizaki hezurak eta niri deitu.

Dirudienez, zabor tasei aurre egiteko hartu zuten bidea izan zen etxeko hormetan zuloak egin eta zaborra ezkutatzeari, kronikak irakurrita ikasi dudanagatik: dirurik ez eta horrela egin zien zirkin zergeri makina bat hiritarrek.

Liverpoola destinatu nautenetik miseria gorri eta krudelarekin ari naiz trabeskatzen eta zapla kolpatzen. Hiri honetako askok erraiak ere estutzen dituen garraztasuna du egunerokoan, distirarik gabeko eta ia itxaropen antzuko bizitza. Biziraun horretan talastan eta zurrumbiloan dabilta azken hamarkada luzeetan scouseak. Miserian bizita, ezertan jantzia ez den jendearen egunerokoa hezur-mamitaraino gogorra nahiz gordina dela ikasgarazi dit Liverpoolek, eta eguneroko horrek, gizaki lotsagabe eta amarrutsuak sortzen dituela ia ezinbestean, legeetatik itzurtzeko orduan bereziki. Horrela izan zen zabor tasaren aurrean.

Sargori eta oskarbi dugu gaur eta izerdi patsetan naiz. Etxeari kiratsa dario, bero sapak areagotua eta tarteka burua leihotik kanpora ateratzen dut arnasa hartzeko. Hainbat kasu aztertzen zaildutako andrea banaiz ere kiratsa ezinegona eragiten ari zait: baina zer arraio da hau!

—Bai? Bai, ni naiz Iturri andrea. Bai —etxetik kanpora ateratzeko aprobetxatu dut telefono deia. Garunak eskertu egin dit, baita bihurritutako urdailak ere. Forentsea da. Patrikan daramadan menta goxoki bat ahoratu dut eta haren usainak lasaitu egin nau—. Ezin liteke! Etxeak hutsik zeramatzan urteak eta! Zer, ezetz? Azken urtea bakarrik? Sinesgaitza egiten zait kiratsa zenbaterainokoa den erreparatuta, baina zeuk badiozu, hala bedi. Zer? Adinean gora zihoazen andre-gizon eta zakur baten hezurak zeudela? Eta? Nola esan duzu? Hara, hara... ondo da. Eskerrik asko – eskegi egin diot deia forentseari.

Agertutako hezurak porotsu daudela azaldu dit, goseak heriotzara daramatzan pertsonak eduki ohi dituzten eran. Bizilagunei galdetzea izango dut onena, ea zer dioten. Egia esan, etxe barruan sartu baino nahiago dut kanpoan iraun, eguzkiak gogor joagatik: usaina samurragoa da kalean. Oinak, baina, beros kiskaltzear ditut eta txankletak jartzea erabaki dut (udan beti daramat txankleta pareta motxilan). Orain bai ondo. Eta orduan pareko etxean begira dugun mutilean erreparatu dut: zorrotz begira daukagu, bere atariko eskaileretan eserita. Itzaletan da, etxea laiotzean baitago. Begiratu egin diot nik ere lotsagabe eta burua makurtu ordez, begiradari eutsi dio, zirkinik egiteke serio. Benetan izaera gogorrekoak dira Liverpooleko hauek.

—Bego, begira, hauek dira aldameneko etxeko bizilagunak: Peter eta Ben, aita-semea. Galdera batzuk egin nahiko zenizkiela esan diet eta zuregana etorri nahi izan dute.

Dominik konstableak nire gogoetatik atera nau. Berarekin etorritako bikoteagan jarri dut arreta. Kalez bestaldera tinko so dugun mutilarekin beranduago hitz egin beharko dut.

Ondo dator jantzita aita-semea bikotea, esan nahi dut, ez pijametan, Wavertree auzo honetan —edo Liverpoolen, hedaduraz— arrunta zaien eran. Bakerotan datoz eta kamiseta zuria dute. Hemengo estandarra edo ohiko janzteko kodea kontuan hartuz, bi gizon hauek txukun jantzita datozela aitortu behar dut. Nik ezer esan behar gabe hizketan hasi zaizkit, hau ere ohikoa Liverpoolen, hiztunak dira oso scouseak, berritsuak baino eskuzabalak hizketan esan genezake.

—Bikote maitagarria, Gloria eta Frederick. Duela bost bat urte alabarekin bizitzera joan ziren Manchesterra, negar malkotan agurtu genituen. Erizaina da alaba eta baita suhia ere, eta haiek ondo zainduko zituztela ulertu genuen. Gainera, lau biloba dituzte Manchesterren bertan eta zer esan, aldaketa onerako izango zela onartu genuen, gure nahigabeari aurka eginez. Hutsunea utzi ziguten guri, ordea, tarteka etortzen ginelako haiekin tea hartzera, ezta, Ben? Bikote xahar maitagarria! Ondo izango dira alabarekin, biziko badira —azaldu dit aitak.

—Bai, eta pasta goxoak egiten zituzten elkarrekin hitz aspertuan aritzeko. Zer gertatu da edo zer aurkitu duzue haien etxean, horrenbeste ertzain eta jende pilatu zaitezten? Obrei ekin zioten eta hori ikusitakoan etxea saldu

zutela pentsatu genuen. Bizilagun berrien zain ginen ordutik. Zer jazo da, andrea? —galdetu dit, zapiarekin kopeta lehortu ahala semeak.

Aita-semea, beroari ni baino hobeto ari zaizkiola aurre egiten esango nuke, energia betean sumatzen baititut. Ni, aldiz, nahiko makal nago eguzkipean, baina etxe kirastu barruan ondoezik amaitu baino nahiago dut hemen urtzen jarraitu.

Ez diet solasaldia eman nahi gizon hauei, gertaerak ikertu baizik. Ez diet galderarik erantzun nahi ere, ez naiz ni izango haien jakin mina aseko duena, ez oraingoz behintzat. Beraz, duela bost bat urte alabarengana joan ziren Gloria eta Frederick zantzu guztien arabera, nahiz eta bene-benetan hemen izan diren denbora tarte horretan, horman sartuta. Kontu makabroa, ezpairik gabe. Eta zakurra? Haren berri izango al zuten Ben eta Peterrek?

—Katu ala zakurrik al zuten?

—Bai, zakurra, Happy! Alaia zen eta oso atsegina, horregatik izena. Zaunka gutxi egiten zuen eta eguna eman zezakeen etzanda. Etxe zaindari aparta zen —biak ia batera mintzatu zaizkit, bata besteari txanda ostuz, baina ulertu diet esan dutena—. Happy, border collicia zen, artzain zakurra. Gure Little yorkshirearekin oso ondo moldatzen zen. Hau ere bi egunetan bere txokoan gelditu zen alde egin zutenean, gu bezala goibel eta indarge —eta deitu egin izan baliote bezala, gure artera agertu da txakurtxoa, jolasteko irrikaz. Maite ditut txakurrak eta laztan arin bat egin diot Littleli, makurtuta. Makurtzean, alabaina, pareko etxe-atarian eserita dirauen

mutilarekin gurutzatu dut nire begirada. Hortxe dirau, begira-begira, begirada ziztatzaile eta sarkor zoliarekin. Ia desafioka. Harekin hitz egin nahi dudala argi dut.

Ben eta Peter eskertu, baita Dom konstablea ere, eta azalpen gehiago eman gabe misterioa darion mutilarengana abiatu naiz. Hamabi bat urte izango ditu, hamalau gehienez gorpuzkera txikikoa bada. Ez du keinu txikienik ere egin harengana nindoala ikusi duenean. Gogorrak dira gero haur hauek. Argi dago polizia ikertzaile batek ez duela uzurtuko. Horrela hobe, parez pare hitz egin ahal izango diot haurra izan arren. Itzulingururik gabe zuzendu natzaio.

—Egun on, gazte! —gazte deitzea egokiagoa iruditu zait mutiko baino—. Denbora daramazu guri beha. Esatekorik duzu?

Begirada hotza itzuli dit: ez dut berehalakoan lortuko harremana. Hau dut ohiko giroa, inork ez du poliziaren lagun —hots, kontakatilu— izan nahi alderdi hauetan. Beti agertzen dira mesfidati, desafiatzaile edo muzinka, nagusitasuna erakutsiz, eta haien ezaugarritzat dute joera hau. Badakigu. Halere, mutil honek zerbait askatu nahi du eta bidea eman behar diot. Setatsu dut begira, ez da nire autoritatea desafiatzen ari. Zerbait daki eta ez daki nola kanporatu.

Ezer esateke jaiki eta etxean sartu da. Atari aurreko hesiaz bestaldera gelditu naiz ni, —itzaletan sikiera, bada zerbait—. Zain izango naiz, zerbaiten bila joan dela iruditu zaidanez. Eta hala izan da, minutu eskasera

argazki kamera bat eskutan hurbildu zait. Hitz gutxi esan du, baina komunikazioa bideratzeko nahikoak.

—Zerorrek ikusi, andrea —eta argazki kamera luzatu dit duinki, argazki bat du kargatua.

Kosta zait zer den ulertzea: egongela batean andre eta gizon zahar bi aulki banatara lotuta antzeman ditzaket, ahoa zinta beltzarekin estalita; akituta dirudite, aulkian erdi botata, erdi erorita baitaude, piura eskasean. Mutilari begiratu diot argitu nahian eta berak jarri ditu hitzak nik ezer ahoskatu baino lehen.

—Gloria eta Frederick. Duela urte batzuk hartutako argazkia da. Haien lorategia zaintzeko eskatu zidaten Manchesterren ziren bitartean eta horretara joan nintzen. Egongelara begiratu eta hori ikusi nuen. Argazkia atera nion. Amari erakutsi eta etxe barruko kontuak norberak konpondu behar dituela esanez, isilik egotera behartu nau errietaka. Argazki gehiago dago. Aurrera joan. Atera ondoren behin bakarrik ikusi ditut berriz, ez dut gehiagotan ikusteko ausardiarik izan. Eta behin, egun batez, ez zeuden. Happy ere ez. Zer gertatu zitzaien? Ezer onik ez, ezta? A, zure begirada ilun eta isilak ezezkoa dio. Sufrea! Zergatik gertatu behar zaizkio gauza txarrak horren zintzoa den jendeari! Ez, ez ezazu ezer esan, hobe. Ama berehala etorriko zait eta belarritik helduta eramango nau barrura, ertzainak etsaiak zarete beretzat. Tori kamera, erabili behar duzunerako. Gero itzuli edo eros iezadazu berdina den berri bat! Hori da nire tratua.

Lasai, amak ez daki bi kamara ditudanik —eta bigarrena atera du altzotik—. A, eta hamalau urte ditut, lehen galdetu didazu adina, begiekin.

—Tony! Zer ari zara hor banpiroarekin jardunean! Zatoz barrura ziztu bizian! —ama, herensuge amorratu eran semearen bila atera da etxe barrutik, beste hiru haur bere oinetan bueltaka. Eta zapla! Matraileko ederra eman dio gazteari nire aurrean—. Xixt! Zuk ez duzu ezer afera honetan, semea hezteko ardura nirea eta senarrarena da, eta guk jakingo dugu nola hezi, ezta? Ez diguzu orain zuk irakatsiko zer egin! —bota dit erretolika, norgehiagokan eta besotik arrastaka eramane du semea etxe barrura, honek aurka egin gabe. Buruarekin baietz egin diot mutilari, gertatutakoaz arduratuko naizela, eta begira nuela bere kamera motxilan gorde dut. Atea gogor itxi du amak haien atzean eta dena aurreko isiltasun gordinera itzuli da. Kale horretan ez dela inor bizi dirudi edo ez dagoela inor bere etxean une honetan, Gloria eta Fredericken etxean gauden langile, ikertzaile eta ertzainak ezik. Ezagun da bizilagunak etxeetan gotortuta daudela.

Kalean gora eta behera ibiltzea erabaki dut, hala dagokit ere. Bihozkada izan dut: mutilak bezala besteren batek ere hitz egin nahi lezake, baina diskrezioz, ez auzokoen begiradapean. Oinez noala, etxe denetan errezelak itxita dituztela egiaztatu dut eta baten batean ni hurbildu ahala poliki itxi dituztela. Bai, jendea badago, baina etxe barruan, haien oskoletan baleude bezala. Eta hara! Esku bat ikusi dut ate bazter batean “hator!” esan didana. Atzeko patiorako sarrera da. Sartu baino lehen kale hasieran dagoen konstableari keinu egin diot atzeko patiora noala jakinarazteko. Ulertu

duela keinu egin dit bueltan. Bai, ertzainek zeinu hizkuntza propioa dugu, distantziak hartara mugatzen gaituenean darabilguna. Eta ahots-eskuari jarraitu diot. Itzaletan zegoen andreak diosala formal baten bidez agurtu nau.

—Marjorie, zure esanetara, andrea! —tentetu egin zait agurtzeko. Ez nuen honelakorik espero.

—Marjorie, Bego naiz, ikertzailea —aurkeztu natzaio duintasun berarekin. Adineko emakumea dut aurrean, itzalekoa; begi urdin biziak ditu eta aurpegia dirdaitzen diote, zimurrek samurtasuna ematen eta ile urdinak nortasun betea—. Ikusi dut Gloria eta Freden etxean zabilatzatela. Desagertu egin ziren, baina ez ziren desagertu, ezta? —bere baieztapen kontraesankorrak harritu egin nau. Zer esan nahi du, edo, zer daki?

—Auzokideak desagertu egin zirela diozu, baina ez. Zer esan nahi duzu? —galdetu diot.

—A, ez dira desagertu diren bakarrik izan. Begira, bi etxe aurrerago Jim eta Petra zeuden eta horiek ere alabarekin bizitzera joan ziren. Eta berdin lau etxe harantzagoko Thomas eta Elizabeth ere —etxeak hatzez seinalatu dizkit—. Ez dugu haien berri izan joan zirenetik. Nire ustez, agertutako andre gaztea ez zen haien alaba, behintzat Tom eta Lizen alaba zela esan zuena ez zen nik gogoratzen nuen tankerakoa.

Solasaldian jarraitu dut Marjorierekin, zer zioen edo zer zekien arretaz adituz. Bukatutakoan, agurtu eta berak aipatutako etxeetara joatea erabaki dut. Biek dirudite itxita eta erdi utzita. Hori gutxi ez balitz, Marjoriek azpimarratu bezala, biei darie kiratsa. Ez al da inor honetaz konturatu lehenago? Agian bai, baina etxeko trapu zikinak etxe barruan argitzen direnez, auzoan inork ez duela ezer jakinarazi, ez jakinaraziko ulertzen hasia naiz. Ezer berririk ez zeru azpian. Istiluak gero eta urrutiago hobe, aski dute egunerokoa aurrera ateratzearekin hemengoek eta asko arazo marduletan dago dagoeneko gehiagorako beharrik gabe. Kiratsa dut arrasto. Ezkutatutako zaborra izan liteke, ala hilketa serie baten aurrean egon gintezke. Eta bigarren hipotesia gorputz hartzen ari da nire susmoetan. Txankletak ondo jarri ditut, bero dago gero eta eguratsak usain txarra areagotzen du.

—Bai? Bai, ni naiz Iturri andrea. Bai. Nola? Hezurren ahultasuna odol faltak sortu zezakeela? Ados —forentseak orain beste hipotesi bat eman dit hezurak horren ahul eta porotsu zergatik dauden azaltzeko: adinaren ondorio den osteoporosiaz gain, antza, hemoglobina faltak eragiten duen ahulezia omen dute hezurrek; jaki falta izateagatik, liteke, edo odol hustuta hil direlako. Hori, forentsearen bigarren ondorioa. Eta bai, aipatutako pertsonak zirela ziurtatu dit, hortzen morfologiak hala berretsi duela: Gloria eta Fred.

Bat batean Marjorie ikusi dut urrunetik niri keinuka: arin dator oinez nigana, arnasestuka, ni harik eta azkarren harrapatzeko moldean. Zer ote du orain andreak?

—Bego andrea, zure esanetara! —esan dit berriz— Begira hango anbulantzia hori —ez nukeen anbulantziarik zegoenik erreparatuko berak hatzez erakutsi izan ez balit— etxe horretan Lynne eta Jackes bizi ziren duela bost hilabete arte. Hor ere berdin, alaba etorri zitzaien. Eta ordutik tarteka anbulantziak aparkatzen du haien etxe aurrean. Halaxe aparkatu zuen aldi batez Liz eta Thomasen etxe aurrean, baita Jim eta Petrarenean ere. Gaur lotu dut. Ez naiz argi ibili: desagertu diren bikote denen etxe aurretan anbulantziak aparkatu izan du eta ez dut gaur arte lotu. Esan dizut eta banoa berriz ere etxera, begirada gaiztoak jasotzen hasi baino lehen. Hau beroa! Agur! —eta etorri bezain arin alde egin du etxera, eskerrak emateko betarik eman gabe.

Eskerrak begiluzeak eta sudurluzeak diren bizilagunak laguntzeko grinarekin izan ohi ditugun, gainerakoan, gure lana motelago egingo baikenuke. Eta eskerrak ere bihotz oneko eta zuzentasun bila dabilen jendea dagoen nonahi. Horiek ditugu maiz ohikotik ateratzen denaren berri ematen diguten herritar soilak. Pentsakizun hauetan murgilduta, anbulantziaren parera heldu naiz. Dominik konstableari eskatu diot keinuka nirekin etortzeko eta alboan dut. Labur-labur azaldu diot zeren susmoa dudan eta ulertu du.

Anbulantzia hutsik dago. Etxera hurreratu gara segidan eta sukaldeko leihoan barna begiratzean arnasa galdu dugu. Beltxargaren mokokada mingarria! Ezin izan dugu ikusi duguna lehen ikustaldian sinetsi. Mutilak bere argazki kameran erakutsi didan argazkiaren parekoa ikusi dugu,

errezelaren zirrikituetatik: bi pertsona heldu daude barruan, andre eta gizon, aulki banatan, aukiei lotuta eta ahoak zinta beltzarekin estalita. Itxura kaskarra dute, deshidratatuak dirudite. Ez dirudi adimenez bizkor daudenik. Odola ateratzen ari zaie norbait biei: poltsak aukian zintzilik dituzte. Zer ikuskizun beldurgarria, edonor dardarka uzteko modukoa. Eta espero gabeen erizain bat agertu da: Marjoriek aipatutako “denen” alaba izan liteke. Bai Dom eta bai ni, biok kuzkurtu gara sukaldeko leiho azpian erizainak kanporantz begiratu aurretik. Orduan ulertu dut, goseak eta odol hustuta hiltzearen kontua: odola erauzten die erizainak eta egarriak zein ahituta hiltzen uzten ditu. Etsigarria da. Ea harrapatzen dugun bihozgabe hau! Motxila lurrean utzi, mugikorra atera eta A botoia sakatu dut: gure larrialdi dei automatikoa da. Besteak bidean dira.

Minutu eskas batera hamar polizia kide ditugu inguruan. Etxeko atea jo dugu Dominik eta biok, gainerakoak xuxen-xuxen ezkutatutakoan. Erizainak ireki du atea, amultsu: “Bai?”

—Begira, inguruan gabiltza ikerketa baten harira eta anbulantzia ikusi dugunez laguntza eskaintzea bururatu zaigu. Laguntzarik beharko zenukete? Ezer egin dezakegu? Lynne eta Jackesen etxea dela aipatu digute bizilagunek, ondo daude?

—Bai, dena ondo dago, sendaketa egitera etorri naiz eta aurreikusitako ohiko osasun bisita. Oso abegikorrak eta eskuzabalak zarete, baina hau betiko errutina da niretzat —erantzuten ari zen bitartean atzeko atetik bi

ertzain sartu direla ikusi dut. Ederki, barruan dugu jendea, alde egitearen itxura egin dezakegu.

—Ados, bagoaz. Esaguzu zer bait behar baduzu, mesedez. Agur, andrea.

—Bai, noski. Eskerrik asko —adierazi eta atea itxi du erizainak.

Ate kanpoan gelditu gara Dom konstablea eta biok zutik hizketan, menta goxokiak jaten itxuraz, denbora egitearren. Badakigu lankideak barruan daudela eta une batetik bestera sartu ahal izango garela gu ere etxean. Hiru minututara ireki digu atea lankide batek, erizaina aulkian dute eserita eta Lynne eta Jackes askatu eta suspertzen saiatzen ari dira; anbulantziei egin diete dei, laguntza behar dute bi atso-agure gajo hauek eta Paper bat erakutsi didate, erizaina puskatzen saiatu dela azaldu bitartean.

Odol poltsen kontaketa dator, izenak daude orrian, zenbaketak, datak eta diru sarrerak. Negozio baten itxura du eskuartean dudan orriak Marjoriek aipatutako bizilagunen izenak irakurri ditut bertan, Jim eta Petra eta beste batzuk. —Zer da hau?— galdetu diot erizainari. Askotan haiei, gaizkileei, galdetzea izaten da zuzenena, haien balentria kontatu nahi izaten dutelako.

—Zuek uste duzue zaharrei inork jaramonik egiten diela? Inork ez, ezta beraien odoleko haurrek ere. Ni naiz bisitan datorkien bakarra, maitasun pixka bat ematera, eta bizitza amaiera goxoa ahalbidetzen diet bide batez. Gizartean haien azken ekintza zintzoa burutzen dute gainera: haien odola

eman, askoren bizitza luzarazteko. Bizitza emaileak dira! Ez al duzue ikusten?

Hona hemen “Heriotza gozoaren Aingerua” izenez ezagutzen duguna. Nola liteke horrenbeste egotea? Kopeta igurtzi dut, ernegatua eta betekada sentsazioarekin. Dena den, paperean idatzita ikus ditzakedan diru sarrerei buruz, negozioa hitz batean, ez du ezer aipatu.

—Eta dirua zertarako behar duzu?

—Ospitaleek odol poltsak zein ondo ordaintzen dituzten jakingo bazenute, sinesgaitz begiratuko zenidakete! Legez kanpokoa izanagatik ez dute jatorria galdetzen eta diru hori, adineko elkarteei ematen diet, haien bizitza hobetu nahi dudalako. Hori dut bizitzan xedea eta zentzua ematen didana, zaharren bizitza hobetzea.

—Eta zergatik gorde dituzu hormetan? —hau ere argitu nahi izan dut, bera izan den jakiteko.

—A, hori? Hemen entzun nion bizilagun bati, zergak gutxitzeko hori egiten zutela eta ideia biribila iruditu zitzaidan niri ere. Etxearen hormekin bat egingo zuten horrela pertsona maitagarri hauek, bertatik alde egin behar gabe, ulertzen? Bertan jaio eta bertan hil, ez al dago heriotza leku hobeagorik norberaren jaiotetxea baino? Haien alaba bezala hartu naute denek...

Ezer txarrik egin izan ez balu bezala zuzendu zait: zer ulergaitza den batzuen buruko jarduna, deabrua bera izutzeko modukoa, hori pentsatzen dut sarri. Konstableekin hitz egin eta haien esku utzi dut dena, motxilan nuen argazki kamera barne, joan beharrean bainaiz. Epaiketa batean lekuko egin behar dut eta zain ditut, hara noa, txankletak erantzi eta zapatak jantzita. Hau beroa!

Beste misterio bat argituta, berau gaiztakerietan gorenetakoa izanagatik. Gajoak denok, ni neu ere bai, gauzarik eskuzabalena eta makurrena egiteko gai garelako pertsonok. Jende ona ere badagoela ez dezadan inoiz ahantz eta inoiz ahaztuko banu egun hura mugarri gerta bekit, berau izango baita nire azken lan eguna lan honetan. Hasperen egin dut. Argi dago zaborrek asko ezkutatzen dutela, baina ez nuen halakorik espero, inondik inora.

Epaitegira bidean, argazki kamera eros dezadan, Tonyrentzat, jagole lanetan aritu denarentzat.

Mari Joxe Azurtza Sorrondegi. Idazteak oreka ematen dit eta gozamina dut. Egia da, idatzi ahala noala neroni ere istorioa harilkatzen edota alderantziz, korapiloa askatzen eta prozesu hori bera dut betegarri.

Ahal dudan gehien idazten dut eta idatzitakoa lehiaketetara bidaltzen, euskaraz, euskaraz bizitzeko gogoa ekintza bilakatuz.

Lehiaketa mordoxka irabazi dut urtetan zehar: Ermuko bibliotekak antolatutakoa, Iurretakoak, Lizarrako Maria Maeztu, Bordari eta Satarka (biak), Durangoko Julene Azpeitia, Erdialde Argako Mirandan, Urnietako On Manuel eta ugariena maitasun eskutitzetan lortutakoak izan dira, Barakaldon eta Leioan. Ogibidea informatika dut eta origamia beste nire afizioetako bat.

